

noaua

**Miriam Arrillaga Beloki,
Bizkaia Torneoko
txapelduna**

**'Ane' film saritua,
ostiralean Sutegin ikusgai**

**Larunbatean Andatzara
igotzeko deia egin du Sarek**



**Isidro Zaldua, Lanbide Eskola:
“Ikasleei lehen kurtsoetik eskaintzen
diegu praktikak egiteko aukera”**

MAIATZAK 16, IGANDEA
19:00 SUTEGIN

Laburbira

Euskarazko film laburren XVIII.zirkuitua - 2021

SARRERA DOAN. Gonbidapena usurbilkultura.eus plataformaren bitartez hartu behar da.



ATERPEAN ATERI
Ruben Crespo



NIGANDIE
Imanol G. Gurrutxaga



GAME OVER
Iñaki Diaz Polanco



ILUNABARREAN ESAN
Xabier Vállina



BABARRUN TXAPELKETA
Aritz Pérez del Marqués eta Julen de la Sierra



DATSEGIT
Aitor Arruti



NIRE EGUNEROKO MAITEA
Eduard Castagnet, Manex Fuchs, Ximun Fuchs



AGUR
Iñigo Ariza Oñez



EZAGUTU
LABURMETRAIAK



noqua



Ate Irekiak

HARTU
HITZORDUA!!!



Maiatzak 12



Erdi Maila: 16:00 - 17:30

Goi Maila: 17:30 - 19:00

Maiatzak 15



Erdi Maila: 10:00 - 11:30

Goi Maila: 11:30 - 13:00



943 364600



adkomunikazioa@lhusurbil.eus

www.lhusurbil.eus

Albisteak iruditan

Miriam Arrillaga Beloki, Bizkaia Torneoko txapelduna

Bizkaia Torneoko pala txapelketaren hirugarren edizioa irabazi zuen maiatzaren 2an Miriam Arrillaga Belokik Amaia Irazustabarrena Jauregi hernaniarrarekin batera. Irribartsu jaso zituen txapela eta kopa, Bilbon ospatu zen Bizkaia Torneoko finalaren garaikurrak. Hemen Leire Galdos eta Maider Mendizabalekin lehiatu ziren final handiko emaitzak: 11-12 / 12-9 / 12-10. Neurketa Euskal Telebista bidez zuzenean ikusteko aukera izan zen.



Amaia Irazustabarrena Jauregi eta Miriam Arrillaga Beloki, txapelketako garaikurrak jaso berrikan.

Laburrean

Eremu gorrian bigarren astez

100.000 biztanleko 14 eguneko 729,23ko intzidentzia zuen Usurbilek aste hasieran. Eremu gorrian jarraitzen duenez, itxiera perimetralak eta beste hainbat neurri murriztaileek indarrean egoten segitzen dute.

Covid-19a dutenentzat, hondakinen bilketa berezia

Covid-19a duen norbait izanez gero etxean, Atez Ateko bulegora deitzea eskatzen du Udalak (900 776 776), hondakinak aparte biltzeko. "PCR probaren lehenengo emaitzaren zain bazaude, ez atera hondakinik", eskatzen du Udalak.

Errigoraren produktuak NOAUA!n

Eskari kopuruan marka guztiak hautsi dituen Errigoraren kanpainako produktuak heldu dira NOAUA! Kultur Elkarrearen egoitzara. Bertan eskura ditzakezue iragan martxoan eskatu zenituzten elikagaiak.

noaUA

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 ||| elkarte@noaUA.eu ||| www.noaUA.eu
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.

Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaUA.eu

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritxalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

Harremanetarako:
erredakzioa@noaUA.eu



Gipuzkoako Foru Aldundia



Euskal presoak
Euskal Herrerria!



Alazne Arruti Bengoetxea

Nomadatasuna

Nomada hitza, grekora egokitu zen, “artaldeak larreetan uzten dituen” zentzuarekin. Baina jatorriz ez dela hitz greko edo latina esan daiteke. Ipar Afrikako erresuma bereber zahar baten izenetik (Numidia) datorrela baitiote.

Numidak, transhumante abeltzainak omen ziren izatez, euren abereekin hara eta hona ibiltzen zirenak urrutiko larre aldaketak eginez. Produktibitate aldakorrari aurre egiteko, inguruari egokituaz etengabe mugitzen zirenak. Denborarekin, sedentarismora egokitzen hasi eta klanetan banatzen hasi ziren arte. Eta grekoek, erresuman barneratu ez ezik, euren hizkuntzara ere ekarri omen zituzten nomas edo nomados gisan, kontzeptu berri hau euren nomos adieraren erroarekin bat eginaraziz.

Ezagun ditugun nomadak ordea, toki batetik bestera mugitzen diren komunitate eta giza taldeak dira. Ez dute euren kokapena, aktibitate nagusi baten baitan aldatzen. Ez dute oinarri iraunkorrik. Abian doaz etengabe. Inongo lurrari betiko lotu gabe. Agian, beharraz baino, ohituragatik aurrera jarraitzen. Galtzekorik gabe, baina norabait galduaz eta egiazki, zapaltzen duten lurra birritan



“Komunitate baten parte izateak ez du inolaz bermatzen bakardadeari izkin egitea. Eta horixe da *Nomadland* filmak oroitarazi didan ideia nagusia”.

ALAZNE ARRUTI

“XXI. mendean nomadatasun berriak sortu ditugu. Naturearekin loturan, lurra higatzen jarraitzeko aukera berriak erdituz”

zapalduko dutenaren ziurtasunik gabe.

XXI. mendean ordea, nomadismoa ez da soilik herri indigenetan gauzatzen. Geure pribilegioetatik egindako irakurketaz, nomadatasun berriak sortu ditugu. Naturearekin loturan, lurra higatzen jarraitzeko aukera berriak erdituz.

Oroitzen dut nola duela urte batzuk, Europa iparraldetik behera zetozen autokarabanadun jubilatua ikustean sentitzen nuen halako inbidia edo kuriositate moduko bat. Noizbait euren gisan ibiltzeko aukera

izango nuelakoan, baina zenbait urte gutxiagorekin. Lau gurpil birakari, errepide luze bat eta gorputz bizidun bat ezezaguna denaren bila.

Bestetan, zeru marratura burua altxa eta han irudikatzen nituen hegazkinak jendez gainezka. Itsaso eta mendikateen gainetik zehar hegaz. Lainoak, oztopo eta mugarik gabeko mundu batean biziko bagina legez birrintzen. Inoiz benetan, lurretik oinak altxako ote nituen jakin gabe. Eta akaso, ordutik hasi nintzen bidaiatzea eta arrakasta, banatu ezinezko kontzeptuak zirena-ren ideia hutsala elikatzen.

Egun, Estatu Batuetan nagusiki, nomada teknologikoen ideia ustez erakargarriaz harago, bada azken mendeko nomadatasun berririk. Izan ere, 2008 urteaz geroztiko krisialdi ekonomikoak ez du errukirik izan inorekin. Inolako babe-

sik gabe eta hipotekek itoita, milaka sasoiko behargin helduk euren etxebizitzak berrantolatu behar izan dituzte, furgoneta, karabana edota irudika ditzakegun edozein formako garraio/bizilekuean. Eta noski, Amazonek berak esaterako, esku lan merkea bermatzen jarraitzeko aukeratzat baliatu du, hauentzat guztientzat hainbat aparkaleku alokatuz. Eta halaxe, ia ohartu gabe, krisiaren aurrean bizirik dirautenek komunitate berri bat sortu dute, nomadatasunean. Noizbait izan zuten bizitzaren itzal bat, promesen estatuaren parte izateari utzi gabe.

Komunitate baten parte izateak ordea, ez du inolaz bermatzen bakardadeari izkin egitea. Eta akaso, horixe da *Nomadland* pelikula oroitarazi didan ideia nagusia. Parez pare jarraitzen nau izutzen nauen horrekin. Bizitzari neure kasa eta bakarrik aurre egin behararen aurrean. Orain-txe, inguruari inoiz baino lotuago nagoen garaian bertan. Eta aurrez irudikatuko ez nukeen helduaredu bati, ordezko bat bilatzen hasi naiz. Inguratuko nauen komunitateari forma ematen. Etengabe ahaldunduko nauen egunerokotasun bat osatu nahian.


Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpiroz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde

Komikia



Amaia Zubiriarentzat Adarra Saria

Donostiako Udalak 2021eko Adarra Saria Amaia Zubiria zubietarrari ematea erabaki du. Ekainaren 21ean 19:00etan Gipuzkoako hiriburuko Victoria Eugenia antzokian eskainiko duen kontzertuan jasoko du saria, Musikaren Europako Egunean hain zuzen.

“Musikari talde zabalaz” inguraturia egongo da omendua. “Pascal Gaigne, Karlos Gimenez, Angel Unzu, Iñaki Salvador, Aitor Furundarena, Ritxi Salaberria, Gonzalo Tejada, Luis Camino, Manu Gaigne... Hainbat kolaborazio ere izango dira: Maider Ansa, Jaione Olazabal, Matixa Otero, Francisco Herrero, Ainara Ortega, bere seme Edorta Amurua Zubiria eta Jon Maia bertsolaria tarteko”, antolatzaileek zehaztu dutenez.

“Euskal musikaren arloan garrantzia edo eragin bereziko ibilbidea egin duen edo egiten ari den artista bati, urtero, omen egiteko”, hortxe sariketa



“Musikari talde zabalaz” inguraturik joko du Victoria Eugenia antzokian.

honen helburua. Mikel Laboak, Ruper Ordorikak, Benito Lertxundik, Fermin Muguruzak, Anarik, Berri Txarrak taldeak eta Kepa Junkerak jaso dute aurreko urteetako Adarra Saria.

Emanaldirako sarrerak jada salgai jarri dituzte donostiakultura.eus/sarrerak atarian. “Lau sarrera erosi ahal izango dira gehienez pertsonako”, ohartarazi dute antolatzaileek.

Funtsezko eragina, ondorengo belaunaldietan

Amaia Zubiriaren ibilbidea go-raipatu du Donostia Kulturak.

“Amaia Zubiria euskal musikaren ordezkari garrantzitsuenetakoa da. 1970eko hamarkadan hasi eta gaur egunera arte luzatzen den ibilbidean, aparteko gaitasuna duen interprete eta musikagilea dela utzi du agerian eta funtsezko eragina izan du haren ondorengo euskal musikariaren belaunaldietan. Kantu tradizionalen gaurkotzaile gisa egindako lanak eta euskal zinemaren puntako soinu-bandetan izandako lankidetzak haren lan artistikoaren garrantziaren neurria ematen digute”.

18. Laburbira ate joka

Euskarazko film laburren proiektzioa maiatzaren 16an egingo da, 19:00etan Sutegin. Proiektzioa joateko izena aurrez eman beharko da doan, usurbilkultura.eus atarian. Amaieran, “Ilunabarrean esan” film laburraren zuzendari Xabier Vallinarekin solaserako tartea izango dugu.

8 ikusentzunezko

Euskaraz ekoiztutako 8 lan ezagutzeko aukera izango da:

- **Aterpean Ateri** (Ruben Crespo).
- **Nigandik** (Imanol G. Gurruixaga).
- **Game Over** (Ilune Diaz Pollacino).
- **Ilunabarrean esan** (Xabier Vallina).
- **Babarrun txapelketa** (Andoni Martinez de Madina eta Julen de la Serna).
- **Datsegit** (Aitor Arruti).
- **Nire eguneroko maitea** (Eñaut Castagnet, Manex Fuchs, Ximun Fuchs).
- **Agur** (Iñigo Acha Gómez).

Ika-mika

Sagardo Eguna, etxetik

Kaixo lagunok! Izugarriko gogoia genuen aurtengoan gure herriko plaza betea ikusteko, baina tamalez, egungo osasun egoera dela medio, ezinezkoa da horrelakorik antolatzea.

Aurtengo honetan ere zuen

etxeetan ospatzera animatzen zaituztegu ordea, jantzi balkoiak lehengo urtean banatu genituen eta gorde zenituzten plastikoekin, atera maindire txuri bat eta trapu gorriren batekin atondu, atera armairutik baserritar jantziak, ireki sagardo botila

eta egin TXOTX! Ez gaitzala egoerak atzera bota eta ospa dezagun Usurbilgo Sagardo Eguna, ahal den moduan eta beti ere osasun neurriak zainduz.

Ez dezagun ahaztu inoiz... Usurbildarrak daukate... sagardo... alkate.

Datorren urtean inoiz baino kementsuago itzuliko gara!

Gora Usurbilgo Sagardo Eguna!

Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak.



Txirikorda, udan has daitezke eraikitzen

Etorkizunean, Ugardon-eremuan kokatuko den belaunaldi arteko etxebizitza komunitarioaren proiektua gauzatzeko berebiziko garrantzia duten urratsak eman zituen udalbatzak, apirilaren 29ko osoko bilkuran. Exekuzio proiektua eta exekuzio obra kontratazeko pleguak aho batez onartu zituzten udal talde guztiek. “Bi behar sozialei erantzuteko” jaio zen proiektua, alkate Agurtzane Solaberrietak udalbatzarrean oroitarazten zuenez; gazteen emantzipazio beharrei erantzuteko edota bakarrik bizi diren adinekoei, izaera komunitarioa izango duen bizilekua eskaintzeko. Belaunaldi arteko hartueman eta elkarbizitza sustatuko ditu Txirikordak.

Elkarzaintzarako espazioa

Pandemiak oso agerian utzi du zaintzaren beharra guztion delatzen udal gobernu taldeak udalbatzarrean aipatzen zuenez. “Txirikorda elkarzaintzarako espazioa izango da, inoiz baino une egokiagoan datorren proiektua”, alkatearen esanetan.



Belaunaldi arteko hartueman eta elkarbizitza sustatuko ditu Txirikordak. Argazkia artxibokoa da.

TXIRIKORDA

“Espazio pribatua eta elkarbizitza-guneak partekatuko dituen 16 etxebizitzako eraikina izango da Txirikorda”

2 milioi euroko inbertsioa

Aurreproiektua definitzeko Udalak Hiritik At kooperatibarekin batera kolektibookin (belaunaldi anitzetako herritarrek) parte hartze prozesua bideratu zuten 2019ko lehen hilabeteetan. Lanketa hartan oinarrituta eman zaio forma egitasmoari

eta, laster, nola eraikitzen doazen ikusi ahalko dugu. Udal gobernu taldetik iragan asteko udalbatzarrean iragarri zuten, “ondo bidean” uda honetan bertan has ditzakete lanak. Aurretik deialdia argitaratu emandakoan, eraikuntza lanetan parte hartu nahi dutenek eskaintzak aurkezteko 26 eguneko tarte izango dute. 18 hilabeteko epea finkatu da obrak gauzatzeko. Ia 2 milioi euroko inbertsioa bideratuko da etxebizitza komunitario honetara; zehazkiago esanda, 1.963.514,12 euro. Ehuneko ehuneko inbertsio finantzatu

udal gobernu taldetik lehenik ere berri emana izan eta azken osoko bilkuran gogora ekarri zuten; adostua duten “eremuko hitzarmen batzarrari” eta Eusko Jaurlaritzarik jasotako diru-laguntzari esker.

BEZ-a aplikatuko ez zaien eraikitze lanak izango dira gainera, “subjektu pasiboko inbertsioa” izateagatik. BEZ-ik gabe ia 400.000 euro aurreztea eragingo du. Udalak Txirikorda egitasmoa bideratu beharreko ekarpen ekonomikoa udal ekipamendurako litzateke. Apirilaren 29ko udalbatzarrean alkateak berri eman zuenez, inbertsio hau datorren urtean eragingo du Udalak.

Bizitza komunitarioa

Espazio pribatua eta elkarbizitza-guneak partekatuko dituen 16 etxebizitzako eraikina izango da Txirikorda. Batetik, sukalde, logela (bat edo bi), egongela eta komuna izango duten bizilekuak izango ditu. Elkarbizitza-gunea, egongelak, erabilera anitzeko guneak, garbiketa-gelak, terrazak edota arropa zabaltzeko zonaldeak osatuko dute.

Otsoaren babesa areagotzearen aurka

ENBA eta EHNE sindikatuek otsoaren populazioa babesteko Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak azken urteotan hartutako erabakien aurrean mozioak aurkeztu ari dira udaletan, Usurbilgora ere helarazi dute. Apirilaren 29ko udalbatzarrean hartu zuten ahotan udal ordezkariak.

Kezka agertzen dute, 2020ko otsailean Eusko Jaurlaritzak “otsoa espezie mehatxatuen Euskal Katalogoan interes bereziko kategorian sartzeko” tramitazioa abia-

tzea onartu zuelako. Urtebete beranduago, iragan otsailean Espainiako Gobernuak “otsoa babes bereziko erregimenean dauden espezieen zerrendan sartzeko erabaki zuen”. Ondorioz, erabakia behin betiko hartuko balitz, ondorio larriez ohartarazten dute bi sindikatuek, “otsoaren populazioa areagotzeko litzatekeelako gure mugakide diren elkargo autonomoetan eta honenbestez, Euskadin otso populazioak sartu eta egonkortzeko arriskua areagotzeko gurek, eta honek, ondorio larriak ditu, bai gure

mendiko abeltzaintza estentsiborako bai ardi latxa, babestu nahi diren mendiko larretokiak eta Idiazabal gaztarentzat”.

3 eskaera luzatzen dizkiote mozioa aurkeztu duten udalei, kasu honetan Usurbilgoari; batetik, “konpromezu tinkoa” ager dezala “mendiko abeltzaintzarekin eta gure mendiak larretzen dituzten ardi, ahuntz, behi eta zaldiek”; Espainiako Gobernuaren Trantsizio Ekologikoa eta Erronka Demografikorako ministeritzari mendiko abeltzaintzaren alde egin eta otsoaren babesa areagotzearen

aurka agertzen dela helaraztea, eta horretarako baliabide guztiak har ditzala kontuan, tartean ehiza; Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailari helaraztea eskatzen dio, “ez dezala otsoa babes bereziko espezieen katalogoan sartu”, “ez dezan kolokan jarri abeltzaintza estentsiboa”.

Gehiago osoz onartu zuen udalbatzak, apirilaren 29ko osoko bilkuran. EAJ alde agertu zen, PSE aurka eta EHBildu abstenitu zen.

“Txukun” itxitako urte zaila

Aurrekaririk gabeko pandemia baten testuinguruan agurtu genuen 2020a. Bizitzako arlo guztietan eragin du Covid-19ak, baita noski diru kontuetan ere. “Aurrekontuaren exekuzioa zaila eta konplikatu izan da”, zioen Xabier Olano kontuhartzaileak, apirilaren 29ko udalbatzarrean, iazko udal aurrekontuaren likidazioaren berri ematerakoan. Hiruhilero egiten duen moduan, aurrekontuen egoera zertan den azaltzen du.

2020. urteko ekitaldiko itxiera negatiboa izan da, baina aurreko urteetan metatutako diruzaintza gerakinak “ekitaldia txukun itxeko” aukera eman du. Sarrera eta gastuen exekuzioa “aurreko urtekoen azpitik, nahiko nabarmen” geratu dira. Beste datu bat; zorpetze mailari dagokiona. Legediak %75 artekoa izatea baimentzen du. Azken urteotan beherantz doa Usurbilgo Udalaren zorpetze maila. %15,23koa zen iragan urte amaieran. “Osasuntsu gaude”, udal kontuhartzailearen esa-



2020. urteko ekitaldiko itxiera negatiboa izan da, baina aurreko urteetan metatutako diruzaintza gerakinak “ekitaldia txukun itxeko” aukera eman du.

ZORPETZE MAILA

Azken urteotan beherantz doa Usurbilgo Udalaren zorpetze maila. “Osasuntsu gaude”, udal kontuhartzailearen esanetan

netan. Joera honi eutsiz gero, 2027an zorpetze maila 0 izan daiteke.

2020ko udal aurrekontuaren likidazioa zenbakitan

- Sarreraren exekuzioa: %64,48.
- Gastuen exekuzioa: %70,52.

■ Ordaindu gabeko saldo guztiak ordaindu edo anulatuak.

■ Kobratzeke zeuden saldoen %25,16 kobratu eta beste %12,03 anulatu dira. Zatiarik handiena kobratzea zaila edo ezinezkoa izango denez, 1.875.027,07 euro jaso ditu Udalak kobragaitzen horniduran.

■ Gastu orokorretako diruzaintza gerakinarekin finantzatutako obligazioak: 1.271.515,42 euro.

■ Finantzaketa lotua duten inbertsio gastuetan metatutako desbideratzeak: 1.116.994,62 euro. 2020ko ekitaldiko desbi-

deratzeak: -329.570,28 euro. Zumarte, Txirikorda edota Txokoaldeko inbertsioei lotuak.

■ Koronabirusaren pandemiaren eraginez, 2020ko ekitaldiko emaitza negatiboa izan da, -1.035.590,80 eurokoa. Aurreko urteetan pilotutako diruzaintza gerakinari esker, 2020ko ekitaldiaren aurrekontuaren emaitza: 175.408,80 euro.

■ Ekitaldi amaierako diruzaintza gerakina: 4.841.314,87 euro. Diru poltsa honetatik, 1.875.027,07 euro gorde behar dira kobratzen zailak izango diren saldoak hornitzeko eta 1.116.994,62 euro finantzaketa lotua duten inbertsioetarako; Zumarte, Txirikorda, Txokoalde eta Agerre-azpiko inbertsioetarako. Ondorioz, 1.849.293,18 euro geratzen dira gastu orokorretarako diruzaintza gerakin gisa.

■ 2020an guztiz erabili gabeko kredituak, kreditu gerakin izatera dutenak 5.061.101,55 euro izan dira. Hortik 3.054.368,29 euro 2021eko udal aurrekontuetan txertatu daitezke.

Iturria: Usurbilgo Udala.

Zinegotzi aldaketa EH Bilduren udal taldean: Ainhoa Arrozpidek Aroa Etxeburuaren tokia beteko du aurrerantzean

2019-23 legealdia erdibiderra heltzearen honetan, aldaketa izango da udalbatza osatzen duten udal ordezkarien artean. Udal gobernu taldeko kideetako batek, kargua uztea erabaki du arrazoi pertsonalengatik; Aroa Etxeburu Ugartemendiak. Bere ordezkari, duela bi urteko udal hauteskundeetara EHBilduk aurkeztu zuen hautesleen zerrendan hurrengo zenak hartuko du kargua maiatza amaieran egongo den udalbatzarrean;

aipatu zerrenda horretako beheratzearen kideak, Ainhoa Arrozpide Landak. Hala berri eman zuen Usurbilgo alkate Agurtzane Solaberrietak joan den asteko osoko bilkuran.

“Lagun handia ezagutu dugu, onena opa diogu”

Pena handiz hartu dute Aroaren erabakia, “bere gaztetasunak, freskotasunak, udal jardunari ekarpen handia egin diezaiokelako”, baina era berean esker oneko agertu dira talde kide

izan dituenak, “lagun handia ezagutu dugu, onena opa diogu”. Kide berriaren etorrera goiraipatu zuen Solaberrietak. “Militante eta ekintzaile nekazina” dela adierazi zuen Arrozpide, “herrigintzan ibilbide oparoa” egin duena; bizileku duen Santuenean, ingurumen arloan edota hezkuntzan, “bere onena ematen eta eragiten saiatzen”. Bere konpromiso eta eskuzabaltasuna eskertu zuen, “herri honen alde lanean jarraitzeagatik”.



Aroa Etxeburu, zinegotzi ohia.



Ainhoa Arrozpide, zinegotzi berria.

Igandean, hondamendiaren zero gunera

Urtea bete da erraustegi-ko eremutik isuritako amoniakoak ehunka arrain, tartean espezie gisa babestua dauden aingirak hil zituenetik. Hondamendi haren urtemuga egunerako (maiatzak 9) erreka honetara martxa antolatu du Anerreka Ingurumen Elkarteak.

“Gipuzkoako Aldundiko Ingurumen diputatu eta Hondakinen Kontsortzioko (GHK) lehendakariak hasiera batean ukatu egin zuen isuriaren jatorria erraustegitik zetorrela. Herritarren salaketan aurrean, ordea, amoniako-ihes bat izan zela onartu behar izan zuen, eta Guardia Zibilak baliabide naturalen eta ingurumenaren aurkako delituen ikerketa abiatu zuen”, gogorarazi du Anerrekak.

Hondamendi honen bueltan nahiz orohar erraustegiaren jardunari dagokionean gardentasun falta erabatekoa dela salatzen du ingurumen elkarteak. “Nahiz eta behin eta berriro goraiatzen duten erraustegiaren segurtasuna eta haren kudeaketaren gardentasuna, errealitateak kontrako erakutsi digu: osasun-arriskua, naturari kalteak eta informazioa ezkatzea”, ingurumen elkartekoen esanetan.

Gauza bat esan, bestea egin

Zerbitzu publiko bati buruz ari garen arren, gardentasun



Arkaitzerrekan amoniakoa isuri zuten orain urtebete.

ANERREKA ELKARTEA

Arkaitzerrekan gertatutakoaz informazioa biltzeko hamaika ahalegin egin ditu Anerreka Ingurumen Elkarteak. “Oraindik ez digute erantzun”

falta erabatekoa dela salatzen du Anerrekak, “intzidentziak gertatzen ari dira”. Zeharka eta eskasa bada ere informazioa heltzen dela diote. “Gipuzkoako benetako aginte faktikoa osatzen duen lobby enpresarioaren zerbitzura dauden bi alderdiek osatzen duten erregimenaren aldetik”, aipatu elkartearen esanetan, “konstante bat izan da gauza bat esan eta bestea gertatzea”.

Ingurumen elkartetik gogo-

ratzen dute, nola Europako hainbat hiriburuetan kokaturiko erraustegiak “erakargarri turistiko bezala” aurkezten zituzten, baina gero Zubietako planta “lekurik ezkutuenean kokatzea erabaki zuten”. Jarri dioten izena; Gipuzkoako Ingurumen Gunea, “co2 gehien isuriko duen industrietako bat” izango denean. Birziklatzea sustatuko zutela esan eta praktikan “gehien birziklatzen duten udalerriek askoz garestiago ordaindu” beharra izatea. Erraustegia Gipuzkoako hiri hondakinak tratatzera mugatuko zutela adierazi eta “Gipuzkoako ez diren industria hondakinak ere sartuko dituzte”, ohartarazi dute Anerrekatik. Kontrol jarraitua egingo dutela iragarri eta “denok dakigu kontrol jarraitua ez duela

izango”.

Eta gauza bera, duela urtebete Arkaitzerrekan gertatutako hondamendiarekin ere. “URA-ren agentziako guardei ez zaie sartzen uzten” eta ukatu egin da hasieran, erraustegiak zeri-kusirik izan duenik amoniako isurketarekin. Une hartan “aurrekoetan izandako isuriak ere aipatzen zituzten eta orduan jakin genuen hau ez zela lehen isurketa, hirugarrena baizik”.

Ahaleginak erantzunik ez

Arkaitzerrekan gertatutakoaz informazioa biltzeko hamaika ahalegin egin ditu urtebete honetan. URA agentziara jo dute behin baino gehiagotan “bi espediente” badituztela jakitun baita Anerreka, Gipuzkoako Hondakinen Kontsortziara (GHK), Foru Aldundira, Eusko Jaurlaritzaren Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordera, Ingurumen Saileira... Gai honetan tramitatzen ari diren espedienteetara sarbidea izateko eskubidea aitortzen zaie, “informazioa eskatu genuen eta oraindik ez digute erantzun”.

Testuinguru honetan, ageriko gardentasun faltaren aurrean, horregatik jotzen dute funtsezkotzat “herritarren kontrola”. Erraustegiaren kutsaduraren eragina neurtzeko laginak biltzen ari dira urtero. Berriki 2019ko “0 laginaren” emaitzak aurkeztu zituzten Suetegin.

“Salaketak bide bat egin du”

Auzitegiaren salatu zuen iaz Arkaitzerrekan hondamendia Anerrekak, Eguzki eta Zubietara Lantzenekin batera. GuraSOSek ere bai. Salaketak “bide bat egin du”.

Akusazio gisa aurrera jarraitzeko aldiz fiantsa ordain-

tzeta eskatzen diete. “Jakitun dira gurea eta gurea bezalako eragileek juxtu gabezia handiena hor izaten dutela eta horrek ezaugarritzen du zer nolako justizia dugun”. Akusazio partikular bakarra egotea exijitzen zaie gainera. Kasu honetan bi daudenez, batearitzea. Ondorioz, “honaino

iritsi gara, guk ez dugu aurrera jarraituko”. GuraSOSek emango dio segida bide honi. “Gu mobilizazio sozialaren bidea jorratzen saiatuko gara”.

Ildo horretan, Anerrekak gaineratzen duenez, erraustegiak eragindako gertaera izan zela salatzeaz gain, “harago goaz, natura zaindu behar

dugu”. Kasu honetan, “Arkaitzerreka hor dago, bere bizi guztia galtuta, hilda. Nork ordainduko du?”. Anerrekak dioenez, “erreka hori biziberri beharra dago eta hor arduradun batzuk daude, hori egin zutenak”. Kontzientzia hau pizteko deitu dute igandeko martxa.

“Errekatziki, Errekazikin”

Maiatzaren 15ean Aranerrekako hondakinak biltzeko deialdia egin dute. Hitzordu horren atarian, “Errekatziki, Errekazikin” izenburua zeraman mezuarekin Artzabal inguruan ikusitakoaz ohartarazi zuen NOAUA! berriki herritar batek. “Puntapax inguruan nahiko garbi ikusten da errekatxoa baina metro batzuk aurrerago...” irudian ikus daitekeena. “Ez da lehenengo aldia”, adierazi dio NOAUA!ri.

“Lanerako gogoia eta katiuskak jantzita” eramatea eskatu dute. Auzolanerako gainerako baliabideak bertan banatuko dira. Egun horren aurretik Udalari uraren kalitatea aztertuko duen analitika bat egitea eskatuko diote. Ekimen honen bidez, “kontzientzatzeko deia egiten dugu, zenbat ur baliabide garrantzitsu eta eder ditu-



Herritar baten oharra jaso genuen orain gutxi NOAUA: “Puntapax inguruan nahiko garbi ikusten da errekatxoa baina metro batzuk aurrerago...”, irudian ikus daitekeena. “Ez da lehenengo aldia”, irakurle honek dioenez.

gun herrian, ze aberastasun duen, eta ze nahitaezkoak diren kalitateko urekin egotea”.

Herritarrei eta administrazioari deia baita; “gure etxeko sukaldea txukun izatea garrantzitsua den bezala, dena den kalea txukun izateak garrantzia bera duela”. Etxeko hondakinakiko usurbildarrek

erakutsitako jokabide ona izan arren, “kalean badugu gure jokabidean zer hobetua”. Aranerrekaren kasuan bezala; lehendik zeuden kontrolpetik kanpoko isurketak esaterako. Itsasoratzen diren hondakinekin eragindako kaltea “hemen hasten da” ohar-tarazten du Anerrekek. “Gure

jokabideak hemen nolakoak, itsasoan eragina halakoa”. Eta bistan da, badugu zer hobetua.

Erreka osasuntsuen aldeko deialdiak

Maiatzak 8, larunbata

■ 11:30-13:00 Arrainen marrazketa Usurbilgo frontoian. Marrazkiok biharamuneko Arkaitzerrekako martxara eramango dira.

Maiatzak 9, igandea


■ 11:00 Martxak Usurbilgo frontoitik eta Zubietatik Arkaitzerrekara.

Maiatzak 15, larunbata

■ 10:00 Auzolana: Usurbilgo Aranaerrekaren garbiketa Artzabal gunean. Amaieran haiketakoa. Katiuskak jantzita eramán.

Deitzailea: Anerreka Ingurumen Elkarteak.

Tapa eta aurkibideak prest



Agur esan diogu 2020 urteari. NOAUA! guztiak bildu eta 2020ko tapa eta aurkibidearekin koadernatzeko garaia da. Bazkide zaretenok azala eta aurkibidea doan jaso ditzakezue NOAUA!ko egoitzan.

Tapa eta aurkibidea doan eskuratzen dituzte bazkideek. Bazkide ez direnek, aldiz, 3 € ordaindu behar dituzte tapa edo azalarengatik, eta 1,20€, aurkibidearengatik. Koadernatzea, Lizardin edota Lauroken egin dezakezue. Hori bai, koadernatzea berdin-berdin ordaindu behar dute bazkideek eta bazkide ez direnek.

LARRE-GAIN
DOLARE SAGARDOTEGIA



Osasun neurri guztiekin
zuen zerbitzura

-Astelehenetan itxita-

Larre-Gain Baserria, ERENOTZU-HERNANI

Tel: 943 55 58 46 / 616 287 867

Bidea, Andatza Eguneko protagonista

Ez zen ohiko trikiti doinurik, ezta hamaiketako goxoaren usainik ere. Ia hutsik zen babesleku pareta. Bidean gorantz edo beherantz, tantaka, talde txikietan Andatzara joandako herritarrak. Gehienak oinez, baten batzuk lasterka. Bizikleta gainean inurritako bisitariak ere ikusi ahal izan genituen.

Denak 2022ra begira, azken bi urteotako maiatzeko ezohiko lehen igandeok ezohiko izateari utzi eta urtebete barru, jai giro beteko Andatza Eguna berreskuratuko ote den esperantzan.

Bi bide aukeran

Aurtengoan helmuga baino bidea izan da protagonista.



Jai giroa ez zen izan pasa den igandean. Hala ere, herritar askok berriro zuten Andatzara igotzeko ohitura.

AURTENGO EDIZIOA

“Helmuga baino bidea izan da protagonista. Ondarea ezagutzeko aukera egon da”

Urdaiaiatik gora, bi bide osatzeko gonbita luzatua ziguten Andatza Eguneko antolatzaileek. Batetik bertako ondarea hobekiago ezagutzeko ibilaldi gidatua goizeko 10:00etan hasita Ziortzako langatik.

Ondarea bistaritzen

Eta Andatzara igo zena ere jabetuko zen; ibilaldia nork bere kontutik egiteko bidea ere seinaleztatu dute aurtengoan. “Bidean, errotarriak, harrobiak eta trikuharriak non dauden ezagutzeko kartelak jarriko dituzte”, iragarria zuen Usurbilgo Udalak. Eta halaxe izan zen, ondoko argazkiak horren guztiaren lekuko.

Orain arte bide beretik igaro eta ikusiko ez genituen altzorak bistaratzeko aukera eman du ezohikoa, jai giroa gabea izan den Andatza Eguna honek. Helmuga, tontorrera heltzea baino inoiz baino nabarmenagoa izan zen hilaren 2an, mendi bideak duen garantzia.



Orain arte bide beretik igaro eta ikusiko ez genituen altzorak bistaratzeko aukera egon da aurtengoan.

Elhuyar Solasaldiak, azken txanpan

Maiatzak 5 asteazkena: Ekonomiaren berreraikuntza, ekologiatik

Covid-19aren ostean, ekonomiaren berreraikuntza ekologikoaren alde egin beharraz ariko dira Mirene Begiristain Zubillaga ekonomialaria eta Arturo Elozegi Irurtia biologoa. Euskal Herriko laurhun zientzialarik baino gehiagok argitaratutako agiriaren sinatzaileak dira biak.

Maiatzak 12 asteazkena: Adimen artifiziala hizkuntzan

Elhuyar Solasaldietako azken hitzaldian, Xabier Arregi Iparagirre EHUko irakasle eta IXA taldeko kideak eta Xabier Saralegi Urizar Elhuyarrek kideak Adimen artifiziala hizkuntzan gaia izango dute hizpide. Arlo honi ikuspegi sozial bat nola eman aztertuko dute.

Solasaldiak Sutegin

■ Solasaldi denak Sutegi egingo dira, arratsaldeko 18:30ean hasita.

■ Streaming bidez jarraitu ahal izango dira: usurbilkultura.eus zientzia.eus

■ Hitzaldiak doakoak izango dira, baina Sutegira bertaratzeko aurrez izena eman behar da, indarrean dauden edukiera-mugak direla eta.

184 izen-emate Udajolasen

200 lagunentzako lekua zegoen eta 184 izen-emate jaso ditugu. Eskaera guztiak onartuta itxi du NOAUA! Kultur Elkarteak Usurbilgo Udalarrekin elkarlanean uztailearen 5etik 30era antolatuko duen Udajolasen izen emateko epea. Xehetasunak ekainean deituko den guraso bileran eskainiko dira.

Basabi txalaparta taldea: “Ohorea handia da Artzetarren herrian gure lana aurkezteko aukera izatea”

Hilaren 15ean eskainiko du kontzertua Basabi taldeak, eta ondoren Kimuren izenean txalaparta erakustalditxo egingo du Sergio Lamuedrak taldekideekin. Jexux Artze Kultur Elkarteak antolatuta, kontzertu berezia eskainiko du Basabik. Txalaparta instrumentu oso maitatua da Usurbilen, Artze anaiak ere antzinako instrumentu hori ondo baino hobeto jotzen baitzuten.

NOAUA! “Basabi” eta “Kimu” taldeetan zabilta. Nola uztartzen da txalaparta gainontzeko instrumentuekin?

Sergio Lamuedra: Kimu Txalaparta 2013. urtean sortu genuen material desberdinetan txalaparta bakarka garatzeko asmotan, 2016an “Kimu Berririk” diskoa grabatu genuen egurrezko txalaparta protagonista zelarik. Bi urte geroago, 2018. urtean, bibolina, biola, kontrabaxua, harpa eta txalaparta uztartzen dituen Basabi proiektua abian jarri genuen.



Maiatzaren 15ean Sutegin arituko dira. Sarrerak usurbilkultura.eus web orrialdean eskura daitezke. Argazkia: Leire Lizarraga.

SERGIO LAMUEDRA

“Basabi taldearekin ‘Kronos’ diskoa aurkeztu genuen Durangoko Azokan. Maiatzaren 15ean Sutegi aretoan arituko gara”

Abenduaren 6ean “Kronos” gure lehen diskoa aurkeztu

genuen Durangoko Azokan, maiatzaren 15ean Sutegi aretoan aurkeztuko duguna alegia. Txalaparta oso ondo uztartzen da hainbat musika tresnarekin. Musika-tresnen eta estiloaren arabera egurrezko edo harrizko txalaparta erabiltzen dugu: egurrezko txalaparta erritmoa eta armonia lantzeko oso aproposa da; harrizko txalaparta, berriz, melodia eta armonia lantzeko erabiltzen dugu.

Jexux Artze Kultur Elkarteak gonbidatuta arituko zarete Sutegin. Txalaparta bat da protagonista nagusia, eta Artze anaiak instrumentu hori jotzeagatik egin ziren ezagun, besteak beste. Berezia egiten zaizue Artzetarren herrian eta hain maite zuten instrumentua jo ahal izatea?

Ohorea da guretzat Artzetarren herrian gure txalapatari-ekin egindako lana aurkezteko aukera izatea.

Erreferente dira Artze anaiak zuentzat?

Artze anaiak erreferente dira guretzat eta txalapatari gutzientzat. Beraiek izan zirenen, Beltran anaiekin batera, 1970etik aurrera Goikoetxeatar eta Zuaznabartarren txalaparta zaharra zabaltzeaz gain, musika tresnarekin bide berriak ikertzen hasi ziren lehenak. Gaur egungo txalapatariak duen aukera eta aberastasuna ez lirateke posible beraien aportaziorik izan ez balitz. Zalantzarik gabe.

“1994. urtean txalaparta titulazioa atera nuen eta ordutik etengabe aritu naiz txalaparta irakasten”

NOAUA! Txalaparta euskal instrumentu tradizional ezagunenetakoa da, baina jende oso gutxi daki jotzen. Zuek nola ikasi zenuten txalapatari jotzen?

Sergio Lamuedra: XX. mendeko 60ko hamarkadaren hasieran hiruzpalau bikote aritzen ziren txalaparta zaharra jotzen Donostia aldean soilik, gaur egun txalapatariak Euskal Herriko lurralde

guztietan aurkitu ditzakegu. Baina egia da profesionalki oso txalapatari gutxi ari garela gaur egun. Ni 1988. urtetik aurrera Hernanin Juan Mari Beltranekin txalaparta ikasten hasi nintzen. Nire bikotea Txominek nirekin ikasi zuen hasiera batean eta gero Joxan Artze eta Juan Mari Beltranekin aritu zen ere.

Irakasle zara edo inoiz hala

izatea pentsatu al duzu?

1994. urtean txalaparta irakasle titulazioa atera, eta ordutik etengabe aritu izan naiz txalaparta irakasten herri anitzetan.

Gaur egun, txalaparta irakaslea naiz Donostia eta Zarautzen Zurartean Txalaparta elkartearen bitartez, eta Usurbilen Jexux Artze Kultur Elkarte eta Zumarte Musika eskolaren laguntzarekin.



“Profesionalki oso txalapatari gutxi ari gara gaur egun”.

Isidro Zaldua, Lanbide Eskola: “Gure balioak ikasleekin partekatzea da gure xede nagusia”

Ate Irekiak izango dira maiatzaren 12an eta 15ean Zubietako Lanbide Eskolan. Ikasturte berriaren aurrean, hainbat berrikuntza interesgarri dakarzkite eta horiei guztiei buruz hitz egin nahi izan du Isidro Zaldua zuzendariak NOAUA!rekin.

NOAUA! Urteak daramatzazu Zubietako Lanbide Eskolako zuzendari lanetan. Nolako izan da ibilbidea?

Isidro Zaldua: Usurbilen ongi ezagutzen naute, Zubietako alkate izan bainintzen duela urte batzuk, eta herri batzarreko kide ere bai. Nire ibilbide profesionalari dagokionez, enpresetan lanean aritu izan naiz, Tknika Berrikuntza Zentroan ere lan egina naiz zortzi urtez. Ibilbide horren ostetik, Zubietako Lanbide Eskola honetara iritsi nintzen, eta 2016tik bertako zuzendaria naiz. Patxi Vaquerizo zuzendariak erretiroa hartu zuen, eta ni orduan eskolako irakaslea nintzen. Ia 18 urtez irakasle lanetan aritu eta gero, erreleboa hartu nion.



“Lanbide Eskolan proiektu berritzaileei garrantzia handia ematen diegu; hori lantzen saiatzen gara ahal beste”.

ISIDRO ZALDUA

“INSTAGI osatzen duten enpresek erretiroa hartzean dauden hainbat langile dituzte, eta horien erreleboak gure ikasleen bitartez egitea adostu genuen beraiekin”

Alkate izan nintzenean, udaletxeekin harreman han-

dia neukan, eta esperientzia horretatik ezagutza asko jaso nituen.

Tknikako Berrikuntza Zentroko urteetan ere berrikuntzako proiektuen kudeaketan nire lan egiteko modua aldatu egin zen, eta orain Lanbide Eskolako zuzendaria naizen honetan, proiektu berritzaileei garrantzia handia ematen diegu; hori lantzen saiatzen gara ahal beste.

“Ikasleen ekintzailetasuna landu nahi dugu”

Proiektu berritzaileak aipatu dituzu. Berriki INSTAGIrekin hartueman estua hasi duzue.

Joan zen urtean, ikastetxean azterketa bat egin genuen etorkizuna marraztu nahian, eta horrek balio izan zigun helburu batzuk ezartzeko. Lehenik eta behin, gure balioak ikasleekin partekatzea da gure xede nagusia, eta ondoren taldean lan egitea, sarekatuta nolabait. Zentzu horretan, INSTAGI elkartearekin eta gisa horretako beste elkarte batzuekin lan egitea interesgarritzat jo genuen. INSTAGI osatzen duten enpresek erretiroa hartzean dauden hainbat langile dituzte, eta horien erreleboak gure ikasleen bitartez egitea adostu genuen beraiekin. Urte pare bat enpresan lanean aritu ostean, erretiroa hartzean doan pertsona horren erreleboa hartzea da gure ideia, urtetxo batzuk lehenago jada ikaslea enpresara ohituta dagoela. Ikasleen ekintzailetasuna ere landu nahi dugu norabide horretan.

“Ekintzailetasuna aurrera emateko tresnak ematen dizkiegu ikasleei”

NOAUA! Ikasleen laneratze datuei dagokienez, datu onak dituzue eskuartean, ezta?

Isidro Zaldua: Bai. Oraingo egoera dela medio, datuek okerrera egiteko joera hartu dute zertxobait, baina ikasleak momentuz praktiketan ondo sartu dira. Horri guztiari lotuta beste lanketa bat egiten hasi gara, beste lan lerro bati helduta. Ikastetxea definitzeko helburu tinkoarekin gabilta. Nahi eta behar anitzetako ikasleak dauzka-

gula konturatuta gaude, eta ikasle profil bakoitzari bere helburuen arabera aukerak eskaintzea ezinbestekotzat jotzen dugu. Batzuek zikloa amaitu eta lanean hasi nahi dute, eta horiei ezagutzak ematen saiatzen ari gara ahalik eta lasterren helburua lor dezaten. Lehen kurtsotik eskaintzen dugu praktikak egiteko aukera, eta Zubilan proiektuaren bitartez enpresentzat lanak egiteko aukera ere ematen diegu. Beste ikasle batzuek European mugitu

nahi izaten dute, eta horiei hizkuntzekiko ezagutzak ematen dizkiegu.

Horrez gain, Europako egoera marraztu nahi diegu: nolako kontratuak egiten diren atzerrian, kulturak nolakoak diren... ezagutza hori ematen diegu Erasmusa egiten dutenean, horretarako prestatuta egon daitezten. Sarri gertatzen da ikasle horiekin atzerriara joan eta praktikak gustatzen ez zaizkienean, denbora galtzen ari diren sentsazioa izatea, eta

ez dira jabetzen bestelako hainbat ezagutza jasotzen ari direla. Badira beste ikasle batzuk euren enpresa propioa izan nahi dutenak, eta ekintzailetasun hori aurrera eraman ahal izateko tresnak jartzen dizkiegu eskura. INSTAGIrekin lerro hori ari gara lantzen, batez ere.

Datorren urteari begira, eta Ate Irekietan landu nahi dugun zerbait da, laugarren ikasle profil bat, unibertsitateira joan nahi dutenena.

Maiatzaren 12an eta 15ean, Ate Irekien Jardunaldiak Lanbide Eskolan

NOAUA! Unibertsitaterako bidea irekitzeaz gain, berrikuntza nabarmen bat dakarkizue.

Isidro Zaldúa: DBH bukatzen duten ikasleentzat, egun, ibilbide naturala da batxilerra egin eta unibertsitatera joatea. Aukera dago aspalditik Lanbide Heziketa egin eta unibertsitatera joateko, baina ikasleek gabeziak aurkitzen dituzte askotan hainbat arlotan; dela matematika, dela fisika, dela filosofia... Bide hori jorratu nahi dugu guk. Ikasleei metodologia jakin batzuekin programatzen erakutsi nahi diegu, etorkizunerako ezinbesteko erraminta egungo digitalizazioa kontuan hartuta. Matematika, fisika, hizkuntzak eta filosofia ere irakatsi nahi ditugu unibertsitaterako bidea egitean behar beste tresna izan ditzaten. Beraz, goizetan hautatu duen familia profesionalean arituko da lanean ikasle guztiak egiten duten bezala, eta arratsaldetan robotak programatuko dituzte aipatutako alor guztiak landuz. Hori izango da ireki nahi dugun lerro berria, eta bekak lortzen ari gara ideia hau aurrera eraman ahal izateko. As-tean hirutan aipatutako materialak landuko dituzte ikasleek, eta beste egun batean ekintzak egingo dituzte. Hau da, as-tean lau egunetan egingo den ikasketa prozesua izango da. Finean, lerro natural bat ireki



Datorren asterako bi bisita gidatu antolatatu dituzte. Parte hartu ahal izateko aurrez eman beharko da izena.

ISIDRO ZALDUA

“Oso garrantzitsua da aurre-matrikula datak kontuan hartzea: maiatzaren 31tik ekainaren 18ra arte”

nahi dugu Lanbide Heziketa eta Unibertsitatearen artean.

Egun, teoria eta praktika oso ondo ezagutzen dituzten pertsonak nahi izaten dituzte enpresetan.

Bai, hori da. Egoera horretaz konturatuta gaude, eta lerro berri honek enpresek eskatzen dituzten profesional horiek sortzeko aukera ematen du. Kontua da, egun, bide hori hartzea ez dela erabaki erraza. Lanbide Heziketa lau urte dira, eta unibertsitate ikasketak beste lau. Ohiko bidea hartzen dutenek baino bi urte gehiago behar ditu Lanbide Heziketatik datorren ikasle batek. Zorionez, Eusko Jaurlaritzan lanean

ari da Unibertsitatearekin alde hori murrizteko, eta proposamena luzatu dute lau urte egiteko Lanbide Eskolan eta beste hiru unibertsitatean. Urtebeteko aldea baino ez legoke, eta goi-mailako ezagutzeaz gain tailerreko lana ere ezagutuko lukete ikasle horiek. Azken finean, enpresak hori ari dira eskatzen orain, ezagutza maila altua duten teknikariak. Proiektuak garatzen ari gara ere unibertsitatea amaitu duten ikasleekin. Bost ardatzetako makina bat daukagu, eta norbaiten bila ari gara hori ongi erabiltzeko gai izango dena, eta ez dugu aurkitu. Eskolatik pasatako ikasleren bat izango da hurrengo urtean unibertsitate ikasketak bukatuko dituen, eta proiektu hau garatzeko aukera izan dezakeena. Lerro hori ireki nahi dugu guk, eta horretarako kontseilariordeari proposamena egin nion, eta onartu egin du. Euskadin lerro berri hori lantzen hasiko den

lehen ikastetxea izango gara. Enpresak eskatzen ari direnak ez dira teknikari soilak, beste-lako gaitasunak ere badituzten pertsonen bila ari dira, eta guk pertsona horiek prestatu behar ditugu. Teknologiari lotuta lan egin behar dugu, automatizazioa geroz eta zabalduago dago, eta postu asko galdu egingo dira, edo aldatu behintzat. Ikasleei lanpostu berri horietan moldatzeko tresnak eskuragarri jarri behar dizkiegu.

Ate Irekietan hau guztia azalduko duzue, eta horrez gain, eskola erakutsiko diezue etorkizuneko ikasleei?

Eskola nola antolatuta daukagun erakutsiko diegu, zer-nolako proiektuak egiten ditugun ikus dezaten. Ez interesatuta dauden familia profesionaleko tailerra bakarrik, baizik eta eskola osoa. Aldez aurretik izena eman beharko da, hori bai, talde txikiak antolatu behar ditugulako osasun neurriak direla eta. Eskolara deituta edota email bidez eman dezakete izena interesa dutenek. Harrera bat egingo dugu lehen-dabizi, beharrezko informazio guztia partekatu eta ikastetxea erakutsiko dugu. Oso garrantzitsua da aurre-matrikula datak kontuan hartzea, maiatzaren 31tik ekainaren 18ra arteko epea baitago egiteko. Egiten ez duten ikasleei ezin diegu plazarik eskaini irailera arte.

2021-22 ikasturteko eskaintza ezagutzeko aukera

Maiatzak 12, asteazkena

16:00-17:30 Erdi Maila.
17:30-19:00 Goi Maila.

Maiatzak 15, larunbata

10:00-11:30 Erdi Maila.
11:30-13:00 Goi Maila.

Lanbide Eskolaren eskaintza:

Erdi Mailako zikloak

- Administrazio Kudeaketa.
- Instalazio Elektriko eta Automatikoak.
- Hozteko eta Beroa sortzeko instalazioak.
- Mekanizazioa.

Goi Mailako zikloak

- Administrazioa, Finantzak.
- Automatizazio eta Robotika Industrialak.
- Fabrikazio Mekanikoko Produktzioaren Programazioa.
- Fluido Instalakuntzen eta Instalakuntza Termikoen Man-

tenua.

- Energia Eraginkortasuna eta Eguzki Energia Termikoa.
- Energia Berriztagarriak.

Izen ematea: lhusurbil.eus

943 364 600

adkomunikazioa@lhusurbil.eus

Sareren mendi martxan parte hartzeko deia

Euskal preso enbuen auziari aterabide bat ematea eskatzeko mendi martxak antolatu ditu Sarek larunbaterako, maiatzaren 8an, Euskal Herriko 650 tontorretara. Usurbilgo Sarek ere deialdiarekin bat egin eta Andatzara igotzeko deia egin zuen, hilero moduan apirileko azken ostiralean Mikel Laboa plazan egin dako elkarretaratzean.

Urriari euriagatik bertan behera geratu eta hilaren 8rako Sarek deitu dituen mendi martxen bidez oraindik orain indarrean segitzen duen salbuespeneko espetxe politika salatuko da. “Presoak Euskal Herri ondoko espetxeetara eta, kasu batzuetan, euskal espetxeetara lekualdatzeko erritmo motel eta sumingarriak jarraitzen du. Dinamika horrek amaiera eman beharko lieke 30 urtetik gorako sufrimenduari, urruntzeari eta sakabanatzeari”, Usurbilgo Sarek ostiraleko elkarretaratzean adierazi zuenez.

Egoera hobetzen doan arren, “eszenatoki berri baterantz goaz” Sareren esanetan, “euskal gizartearen eta eragile po-



Hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzea egin zuten aurreko astean Mikel Laboa plazan.

SARE

“Euskal preso politikoei legedi arrunta aplikatzea da eskatzen duguna, etxera lehenbailehen etor daitezen”

litiko eta sozialen bultzadak fruituak eman eta Espainiako Estatuaren blokeoa apurtzen denean, salbuespenari eusten dioten gainerako neurriei amaiera emateko lanari ekitea planteatzen dugu. Euskal preso politikoei legedi arrunta aplikatzea da eskatzen duguna, etxera lehenbailehen etor daitezen”.

Ezabatu beharreko neurrien artean dira Sarek nabarmentzen duenez, “kondena luzeak eta gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten 19 preso eta haien familien sufrimenduari amaitu behar da”. Horrez gain, “espetxe-politikaren humanizazioari bide eman behar zaio”. Espetxealdiaren hiru laurdenak beteak dituztenen kaleratzea ere eskatzen du, “deportatu eta erbestera itzultzeko garaia da”, Sareren esanetan.

Begi onez ikusten dute urte amaieran EAEko sindikatu guztiek eta eragile politiko gehienek adosturiko Euskaldu-

nako Akordioa 80 udalerrri baino gehiagotan berretsi izana, “urruntzeari amaiera emateko eta espetxe politika normalizatu ezartzeko. Era berean, aintzat hartzen ditugu sakabanaketaren testuinguruan onartzen ari diren senideen sufrimendua aitortzeko mozioak. Berriz diogu, desberdinen arteko akordioak eta mobilizazioa, maiatzaren 8an Sarek proposatzen duena bezalakoak (Euskal Herriko 650 mendietara igotzea), eskubideen urraketari amaiera emateko eta konponbidean eta bizikidetzan aurrera egiteko tresnak direla”, Sareren esanetan.

Maiatzak 8, larunbata Euskal Herriko tontorren igoera

■ 09:30 Andatzara abiatzeko hitzordua Mikel Laboa plaza-tik.

■ 11:30 Andatza tontorrean biltzeko hitzordua. Ekitaldia: adierazpen baten irakurketa, “Ikusi mendizaleak” kanta abestea...

■ Izen ematea eta informazio gehiago:

650tontor.sare.eus atarian.

■ Deitzailea: Sare.

Etorkizun hurbileko erronkez hausnartzeko zikloa

Sorturen kongresuaren testuinguruan erronka ezberdinen bueltan hausnartu eta “denok gure aletxoak jartzeko” ekimen zikloa iragarri dute Sortuk eta Ernaik, maiatzaren 6an hasi eta ekainaren 19ra arte; “Usurbil astindu. Esna harrapa gaitzala” izenekoa.

“Herriko indarrak batu eta hurbileko etorkizunaren inguruan hausnartu eta ideiak partekatu nahi?”, hortxe luzatu duten gonbita.

Maiatzak 6, osteguna

18:30 Aurkezpen batzarra Sute-gin.

Maiatzak 13, osteguna

18:30 “Euskal Herri Langilea. Txanponak bi alde ala poliedroa?” Sute-gin. Hizlaria: Andoni Olariaga.

Maiatzak 22, larunbata

11:00 “Ezker Abertzaleko diagnostikoa eta plan feminista” Sute-gin. Hizlaria: Aiora Epelde.

Maiatzak 29, larunbata

11:00 “Aitzaga Elkartearen berantolaketa eta kultur taldearen eraketa” Potxoenean.

Ekainak 12, larunbata

11:00 “Independentziaren aldeko indarrak batzen” mahai inguru Sute-gin. Parte hartzaileak: Ainhoa Etxaide eta Joseba Permach.

Ekainak 19, larunbata

11:00 “Herri kooperatiba. Burujabetzarako erreminta”,

Mikel Laboa plazan.

Hizlaria: Gorka Julio.

-Energia, etxebizitza eta elikadura burujabetza proiektuen kale erakusketa.

■ Izen ematea aurrez helbide honetan: labur.eus/ce00V

■ Oharrak: aforoa kudeatzeko izen ematea beharrezkoa izango da. Ekitaldien lekuak alda daitezke, halakoetan sare sozialen bidez eta izena emandakoei aurrez jakinaraziko zaie.

■ Antolatzaileak: Sortu, Ernai.

Norbere zaintzari buruzko saio bat iragarri dute maiatzaren 12rako

Eta ni? Zaintzak erdigunera, norberarenak ere bai izeneko saioa antolatu dute Hitz Aho Udarregi Ikastolako guraso elkarteak, Arremanitz elkarteak eta Usurbilgo Udalak, maiatzaren 12an, 17:30ean. Online bidez eskainiko da. Interesa dutenek izena aurrez eman beharko dute harremonakusurbil@gmail.com helbidera idatzita.

“Ondo egotea batere erraza ez den garaietan bizi gara, baita baldintza duin samarrak izanda ere. Pandemiaren garaia baino lehenago ere, gutako askok emozioen kudeaketan trebatzen jarraitzeko beharra bagenuen. Izan ere, zer sentitzen ari garen jakitea konplexua izan daiteke. Eta batzuetan emozio horri nola



Interesa dutenek izena aurrez eman beharko dute harremonakusurbil@gmail.com helbidera idatzita.

HITZ AHO

“Geure beharrei arreta jartzen laguntzeko tresna sortu dugu, eta honekin esperimintatzeko saioa izango dugu”

erantzun jakiteko galdu xamar aurkitzen gara, zehazki nondik

hasi jakin gabe. Saio honetan abiapuntu bat proposatu nahi dugu, inspiratzeko edo eta kokatzeko lagungarri izan daitekeena. Geure beharrei arreta jartzen laguntzeko tresna sortu dugu, eta honekin esperimintatzeko saioa izango dugu hau. Proposamen praktikoa izango da, beraz”.

Txokoaldetarren bilgunea ia prest

Azken txanpan dira Txokoaldeko udal-ekipamendu berriko lanak. “Aurreikuspenen arabera, hilabete barru buka daitezke lanak”, berri eman du Usurbilgo Udalak, ondoko argazkia helaraztearekin batera. Apirilaren 27ko argazkia duzue, eraikin berrituaren barnean Udalak auzotarrek egindako bilerakoa. “Udal-ekipamendu berriaren erabileraz, funtzionamenduz eta auzo elkarte sortzeaz aritu ziren”. Auzotarren bilgunea izango da, gaztetxearekin batera, Akerra eraikina.



Auzotarren bilgunea izango da, gaztetxearekin batera, Akerra eraikina.

Kultur Bira

prestatzeko bilera

Bistan denez, osasun krisialdi betean egoten segita, aurtun ere ez dugu 2019ra arte ezagutu genituen moduko herriko festarik izango. Ezohiko testuinguru zail honetan, iaz arrakastatsua eta segurua izan zen Kultur Biren ereduari segida ematea erabaki dute herri eragileek eta Udalak. Uda parte honetarako eskaintza prestatzeko lanketa betean dira. Datorren astelehenerako finkatu dute hurrengo bilera hitzordua; maiatzaren 10ean arratsaldeko 18:00etan Udarregi Ikastolan.

Floxbin taldekoen

abesti berria

“Raus von hier” izena du Usurbilgo Floxbin musika taldeak plazaratu duen abesti berriak. Egunotan zintzilikatu dute Youtuben. Urte honetako bigarrena da. Urtarrilean, “Suge begi”, izenekoa partekatu baitzuten 2021a estreinatu berritan.

2019an argitaratu zuen Joseba Agirresarobe “Txofo” (ahotsa, gitarra), Iñaki Udabe (bateria), Rafael Bajo (gitarra) eta Iñigo Roteta (baxua) laukoteak haien azken lana; “Hil arte bizi” izenekoa.

Sarean entzungai

Orain arteko sortze lan guztiak helbide honetan entzun ditzakezue:

floxbin.bandcamp.com

www.noaua.eus
USURBILGO ATARIA

Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!
USURBILGO HORTZ KLINIKA
ANTTON BERNAL RUIZ DE OÑA
EKAITZ GARMENDIA MERINO
Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78
RPS: 28/17
20170
USURBIL

Uraitz, s.l.
Igeltseritza
Orokorra

693 059 392
uraitz@uraitz.com USURBIL

Maiatzeko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Sagardo Eguna ez da egingo, baina hainbat ekitaldi antolatu dira herrian maiatzean zehar. Hileko aholkua: Usurbilen ez dago inoiz aspertzeko aukerarik, koronabirusa tartean baldin badago ere (eta sagardo botila bat tartean).

**CANCER**

Izugarrizko pena duzu aurren ere Sagardo Eguna ez delako egingo.

Hileko aholkua: Mantendu espiritua, jantzi baserritarrez, ireki sagardo botila eta TXOTX egin... segurtasun neurriak hartuta.

**LIBRA**

Zaintza erdigunean jarri behar dugula esaten zabilta behin eta berri, baina zure burua ez duzu asko mimatzen.

Hileko aholkua: Itzali mugikorra eta egin aspaldian egin nahi duzun hori. Bai, horixe bera.

**CAPRICORNIUS**

Oso estresatuta zabilta eta erritmoa jaitea beharrezkoa duzu. Deskantsua oso garrantzitsua izango da hilabete honetan.

Hileko aholkua: Siesta da zure aberria.

**TAURUS**

Bigarren urtez ospatu beharko duzu zure urtebetetzea pandemia garaian, baina gutxienez aurren kalera atera ahal izango zara.

Hileko aholkua: Launaka eserita bada ere, ez ahaztu lagunak pote batera gonbidatzea!

**LEO**

Udaberriko giroak odola aztoratzen dizu, eta hilabete honetan norbait interesgarria eza-gutzeko aukera izango duzula diote izarrek.

Hileko aholkua: Etxetik ateratzerakoan ez ahaztu desodantea ematea!

**SCORPIUS**

Maskarillarekin nazka-nazka eginda zaude, baina baditu bere abantailak.

Hileko aholkua: Barre faltuak ondo ezkututzen ditu, ezta?

**AQUARIUS**

Garbitasunarena gaixotasuna ari da bihurtzen zuretzat, eta neurriak hartu behar dituzu.

Hileko aholkua: Egund batean gel hidroalkoholikoa lubrikantearekin nahastuko duzu eta orduantxe komeriak!

**GEMINI**

Zure bizitzako etapa berri bat hasiko da hilabete berriarekin. Garai ezin aproposa izango da abentura berriei ekiteko.

Hileko aholkua: Pentsatu duzu musukoen diseinatzaile izatea? Etorkizun handiko lanbidea da...

**VIRGO**


Pandemiaren semaforoarekin obsesionatuta zaude eta gauzak lasai hartzea komeni zaizu.

Hileko gomendioa: Kontuz benetako semaforoak laranja pasatzearekin!

**SAGITARIUS**

Besarkada eta muxuen yonkia bihurtu zara azken urte honetan.

Hileko aholkua: Ezin dituzunez pertsona guztiak musukatu, gainean eraman emergentziako pelutxe bat.

**PISCIS**

Iaztik egun berdina bizitzen ari zarela iruditzen zaizu, eta nekea nabaritzen duzu.

Hileko aholkua: Ez ote da Matrixeko akats bat izango hau guztia?

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

URDAINTZI S.L.
Eraikuntzak
649 43 54 75
943 36 72 64
IT-ak egiten dira
ERAIKUNTZAK-OBRAK-ERREFORMAK

Josue
Igeltseritza:
606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

ARRANDEGIA
PELLO
ASTEARTETIK-LARUNBATERA
8:30-13:30
EGIN ZURE ESKAERAK WHATAPP-ETIKI!
650 31 31 91 USURBIL

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza salgai, kale Nagusia 39, udalxte aurrean. 58m² (bi logela) eta garaje itxia prezioan barne. 649850515.

91m² pisua salgai Txaramun-tokalean. 3 logela, sukaldea, 2 komun, egongela. 11m² terraza, 8m² trasteleku, 24m² garajea erosteko aukera. 678949958.

Etxebizitza salgai Kalezarren: 79m² berritua, 2 gela, komuna, sukaldea, jangela, egongela, harrera. Dena kanpoaldera. Ganbara handia partekatua. 35m² garajea aukeran. 686462705

Alokairuan

Usurbilgo gizonetako bat naiz eta alokairuan pisu bat hartuko nuke Usurbil edo inguruan. 659185107

Alokatzeko etxe baten bila ari naiz. Bi pertsona gara eta txakurra daukagu. 675189500

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

Garage bat alokairuan, 22m² Santuenean. 671547567.

Atxegalden garaje bat nahiko genuke alokairuan edo erosteko. 628498326

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Emakume bat behar da umeak zaindu eta etxeko garbiketa egiteko; Familia zamarik gabekoa. Haurren zaintzan esperientzia izatea beharrezkoa. Nahiago da euskara ondo menperatzen dakien pertsona izatea. 638738505

Game Masterra behar dugu Quantum Escape Room-en. Gaztea bazara, eta jokoak nahiz ihes gelak gustatzen bazaizkizu bidali CV info@quantum.eus helbidera

Txiribogan asteburuetarako lan-gileak behar dira. Interesatuok hona deitu: 629 951 931.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Nikaraguako neska arduratsu eta ondradua, garbiketa lan eta adinekoren zaintza lanetan aritzeko erabateko prestasuna. Esperientziaduna. 602 481 854 / anis-eza@gmail.com

Pertsona helduak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest dagoen emakume bat naiz. Ordu-tegi aldetik disponibilitate osoa. 608935674 (Anjela)

Garbiketa lanak egiteko edo pertsona helduak zaintzeko neska bat naiz. Ordukako lana edo interna moduan 603315126.

Orduka edo interna moduan lan egingo nuke pertsona helduak zaintzen, etxeko lanak edo garbiketa lanak egiten 620081572

Interna moduan pertsona helduak zaintzeko prest. 14 urteko esperientzia, erreferentzia onak. Profesionaltasun ziurtagiria. 667907196

Pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko lan bila

nabil. Orduka egingo nuke lan. 632557858

Karrozero ofiziala. Txapa eta pintura lanak egiten ditut lan bila nabil. 610346085

Erizaina, pertsona helduak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko prest. Interna edo externa moduan. 610827729 / 610346085

Emakume euskalduna eta arduratsua garbiketa lanak egiteko, edo umeak zaintzeko. 699 72 53 34

Pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. Profesionalitate ziurtagiria daukat. Interna moduan edo esterna moduan. 609647728

Erizaintzako laguntzailea naiz eta lan bila nabil. Etxeko lanak, pertsona helduak zaintzeko prest. 626388531

BESTELAKOAK

Filologia ikasketak ditut, ingeleseko klaseak ematen ditut bakarka edo taldean. Maila guztiak. 660845780 / bouchrahajar@outlook.com

Giltza batzuk galdu dira Zu-

martegi poligonoan, tren geltokiaren inguruan. Giltzen artean da Opel ikurra duen bat. Topatu baduzu jar zaitetz harremanetan: 650 488 094.

Sagarrak txikitze egurrezko makina bolantarekin salgai. 678082127 (Aitor)

Sukaldeko Ekonomia oso egoera onean saltzen dut, gutxi erabilia. 678082127 (Aitor)

Potxoenea aurreko petrilean, mahaian ondoan, betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Udaltzainetan utzi ditut.

Bose markako 2 baffle (Studio-craft 300ST) salgai. 80 euro. 3 biakoak, 15-60W. 85dB sentsibilitatea. 660981256 (Izaskun) 620857468 (Emilio).

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, liburuak... Atalluko Garbigunean, doan hartu daitezke. Astelehenerik ostiralera: 10:15-13:00 / 16:00-19:00. Jai egunak ez diren larunbategian: 9:00-13:00.



Zorionak Arhane eta Gabrielle! Maiatzaren 6an 7 urte beteko dituzue. Muxu potolo bat familia guztiaren partez!

Goardiako farmaziak

Osteguna 06 DE MIGUEL Kale Nagusia 32. Lasarte

Ostirala 07 LASA SUQUIA Kale Nagusia 42, Lasarte

Larunbata 08 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Igandea 09 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Astelehena 10 ORUE Jaizkibel plaza 2. Lasarte

Asteartea 11 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Asteazkena 12 URBISTONDO San Franzisko 1. Lasarte

Gainontzeko datak www.cfgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Osteguna 13 GANDARIAS-URIBE Iñigo Loliola 9. Lasarte

Ostirala 14 GIL MARTIN Kale Nagusia 24. Lasarte

Larunbata 15 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

Igandea 16 ACHA-ORBEA Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak ireki-
ta egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
ETXEBARRIA AZUETA, AITZIBER
Andre Kalea, 48 "Cuevas"
943 55 17 93

Agenda maiatza

07 ostirala

- **"Ane" filma**, 19:00etan Sutegin. Sarrerak: 5 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.
- **Manu Urbietaren erakusketa** Artzabalén.

08 larunbata

- **Mendi martxa Andatzara, Sarek antolatu-tuta**. 09:30ean Mikel Laboa plazan, Usurbilen. 11:30ean Andatzako tontorrean.
- **"Konpromisoa" antzezlan** 19:00etan Sutegin. Sarrerak: 10 euro, www.usurbilkultura.eus
- **Manu Urbietaren erakusketa** Artzabalén.

09 igandea

- **Arkaitzerrekara martxa**. Irteera: 11:00etan Usurbilgo plazan eta Zubietako plazan.
- **Kontzertua: Joseba B. Lenoir Gang** 18:00etan Sutegin. Sarrerak aurrez eskuragarri: 8 eurotan, www.usurbilkultura.eus atarian.
- **Manu Urbietaren erakusketa** Artzabalén.

'Ane' film saritua, ostiral honetan Sutegin ikusgai

Jexu Artze Kultur Elkartearen zikloa hastera doa. Ostiral honetan, *Ane* filma eskainiko dute Sutegin. Film honek hiru garaikur jaso zituen Goya sarrietan. Emakumezko aktorerik onenaren saria Patricia Lopez Arnaizek irabazi zuen eta emakumezko aktore berririk onenarena Jone Laspiurrek. Gidoi egokiturik onena ere *Ane* filmarentzat izan zen.

'Ane' filma

- Maiatzak 7 ostirala, 19:00 Sutegin.
- Zuzendaria: David Pérez Sañudo.
- Aktoreak: Patricia López Arnaiz, Mikel Losada eta Jone Laspiur.
- Sarrerak: 5 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.

'Konpromisoa' antzezlan

- Maiatzak 8 larunbata, 19:00 Sutegin.



Sarrerak www.usurbilkultura.eus web orrialdean eskura daitezke.

- Zuzendaria: Begoña Bilbao.
- Aktoreak: Joseba Apaolaza, Ramon Agirre eta Zuhaitz Gurrutxaga.
- Sarrerak: 10 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.

Basabi eta Kimu taldeen kontzertua

- Maiatzak 15 larunbata, 19:00 Sutegin.
- Sarrerak: 10 euro, www.usurbilkultura.eus webgunean.

Igandean Sutegin, Joseba B. Lenoir Gang

Joseba B. Lenoir ibilbide luzeko gitarr-jolea da. Talde eta artista askorekin aritzeaz gain, baditu bakarka plazaraturiko diskoak argitaraturik. *Instroak Vol. 3* bere azken laneko kantak joko ditu igandean Sutegin. Aurretik plazaratutako diskoetako kantak ere eskainiko ditu. 18:00etan hasiko da kontzertua.



Talde formatuan arituko da igandean Sutegin.

Datozenak

Erreferendumaren aldeko sinadura bilketa

Gure Esku taldekoak sinadurak batzen egongo dira asteburu honetan frontoi inguruan. Dena den, hamaikagara.eus atarian ere bada sinatzeko aukera.



Gure Eskuren esanetan, "herritarren indarrak batzea da burujabetzarako bidea. Erreferenduma behar eta nahi dudalako, guk sinatu dugu. Eta zuk?".

Aranerrek garbitzeko auzolanerako deia

"Kalean botatzen diren hondakin asko ibai-sistemara iristen dira eta bertatik itsasora". Herritarrak kontzientziatu eta egoera hobetzearen, Aranerrek garbitzeko deia luzatu dute. "Ez da ezer eraman behar. Maiatzaren 15ean larunbata, goizeko 10:00etan Artzabalén azaldu eta bukaeran hamaiketako bat eskainiko dugu".

- Antolatzailea: Anerreka Ingurumen Elkarte.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMAILEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiiturgintza.com • www.inakiiturgintza.com
600 024 825

ETXETRESNEN KONPONKETA-SALMENTA
MARKA GUZTIAK
DESHUMIDIFIKADOREAK ERE BAI!

645417665
xabier

ZALDIGAIN
ERREMENTARIA
• Burnia, inox, altzairua eta corten altzairuarekin lan egiten dugu.
• Barandilak, balkoiak, eskailera dekoratiboak, solairuarteak...

www.zaldigain.com • info@zaldigain.com
Tfno. 943593303 • Mugikorra: 677463867
Fax: 943300045

GAR
GRUPO MONROY
BERRITZE ZERBITZU INTEGRALAK
628 45 78 39
reformasmonroy@hotmail.es
TXARAMUNTO 14, 2 C USURBIL

Freskagarri Naturala!

Sagardo berriak dasta ditzakezue segurtasunez gure sagardotegian!

Betikio Sagardoa

SAIZAR

Sagardotegia www.sidrassaizar.com

%100 bertako sagarra

OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDEETAN IREKITA (ERRESERBAREKIN) osasun neurri guztiekin

Txotxetik sagardoa jarraitu usadioa!

Santuenea,
Telf: 943 36 50 31

SAGARDOTEGIA

URDAIRA

Sagardotegia

OSTEGUN, OSTIRAL, LARUNBAT ETA IGANDEETAN irekita

osasun neurri guztiekin ERRESERBA EZAZU!

Aginaga 943 37 26 91

SAGARDOTEGIA

aginaga

URTE OSOAN ETXEAN EGINDAKO SAGARDOA

ASTELEHENETAN ITXITA

osasun neurri guztiekin

943 36 67 10

info@aginagasagardotegia.com www.aginagasagardotegia.com

Edertu zaitez!

ANAR ESTETIKA

Ballancer®

presoterapia

Kliniko eta zientifikoki
irtenbide frogatua
mediku eta estetika
arlotarako modaltzen den
erantzuna



Munalurra 2, Usurbil 943 571 680



Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal



JUBILATUENTZAT AUKERA ONENA

Artzabal baserria 688 75 96 96

KALITATEZKO PRODUKTUEKIN ESTILISMOA ETA ESTETIKA LANTZEN DITUGU

INTZA

ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

Ile mota guztiak. Pertsona mota guztiak.



Eguerdiaren irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41



Elexpe

ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

GOLDWELL
ELUMEN

9.00etatik 19.00etara zabalik



ileapaindegia

mista

BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA

KONTSULTA DOAN!

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951